

“KOSMODISEAK IRUDIMENA ETA ELKARREN ARTEKO ERRESPETUA SUSTATZEN DITU”



Amaia Unamuno - Elgoibar Ikastola | Lehen Hezkuntza Neo [3. saria]

Amaia Unamuno da Elgoibar Ikastolako “Berdeak” taldearen arduraduna. Talde horrek lortu du Lehen Hezkuntzako Neo kategorian hirugarren saria.

- Orokorrean, nola baloratzen duzue Kosmodisean parte hartzearen esperientzia?

- *Oso ongi.*

- Zure ustez, zein izan da ekimen honen alderdi interesgarriena ikasleentzat?

- *Orokorrean, jarduera guztiak, baina, bereziki, soinua eta irudiak grabatzea.*

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?

- *Oso pozik daude.*

- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?

- *Egokiak iruditzen zaizkigu.*

- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?

- *Kosmodiseak talde-lana, irudimena eta elkarren arteko errespetua sustatzen ditu.*

- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?

- *Onena, ikasleen motibazioa eta hobekuntza. Nire ustez, simulagailua soberan dago, ikasle gazteenentzat behintzat.*

- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?

- *Ez dugu parte hartuko, gure ikastolan parte hartzea ziklo ezberdinetako 1. mailei dagokiela erabaki baitugu.*